

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua burutzeko arrazoa, kosta zein itsaslabarretik hondakinak bilduz bertako ekosistema garbi mantentzea da. Ondorioz, hau izango da futsezko jarduera nagusiena, enpresako hiru langileok boluntarioen laguntzarekin burutuko duguna.

Jarraian, jasotako guztia *Tecnoeraser*-era garraiatuko da bertan banatu eta birziklatzeko. Horretarako, Uxue arduratuko da helikoptero zein kantinplora enpresekin, Udalekin eta Urola Kostako elkarteekin antolaketa finkatu eta adostez. Horrez gain, sare sozialetako mezu, posta elektronikoa eta deiak erantzunoko ditu. Gaur egun, mugikor baten bitartez egin daitekeenez, ez dugu beste enpresarik azpikontratatu beharrik izango.

Telebista, irratia eta aldizkarietan argitaratu eta igorri behar dena ere, geuk prestatu, zuzendu eta idatziko dugu. Uxuek, idazteko gaitasuna duenez, esan eta publikatu behar diren testuak idatziko ditu. Miriamek, esperientzia duenez bideo muntaiak egiten, bera arduratuko da hori burutzeaz. Azkenik, Eneritzek, hitz egiteko erraztasuna duenez, enpresako bozeramailea izango da.

Gure logoa duten kantinplorak salduko ditugu diru-sarrerak izateko. Horretarako ur botilen enpresa batekin kontaktatuko dugu beraiek diseinatu, ekoiztu eta garraiatzeko.

Azkenik, administrazio eta kudeaketa bat beharrezkoa izango da enpresarentzat. Horregatik, Miriam eta Eneritzek diru-sarrerak administratu, eginkizunak zehaztu eta arazoak aztertzeke betebeharra izango dute.